

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Busturiko Udala****2020 urteari dagokion Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko udal Zergaren kobrantza.**

Udal zerga hau ordaindu beharrean dagozan Udalerri honetako herritarrei jakin eragiten zaie, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko 2020. urteko zergaren padroia onartu ondoren, ordaintzeko borondatezko epea zabalduko dela ondoren azaltzen diren eratarra, epe eta tokietan:

**A) Borondatezko epean***Ordaintzeko epea*

Urriaren 15etik, abenduaren 15era, biak barne.

*Ordaintzeko tokia eta era*

- Helbideratu gabeko erreziiboak: Edozein kasutan ere, etxeetara bidali diren orriak Kutxabanken, Axpe Auzoan-Busturia.
- Helbideratutako erreziiboak: Banketxe zehatz baten bitartez ordainketa egiteko agindu duten zergadunen kasuan, erreziiboa horretarako ezarritako kontuan zordunduko zaie.

Orriak jaso ez edota orriak galdu badira, Udaletxeko udal bilketa bulegoan. Orriak hartu ez izanak ez du ordainketa egin behar ez duenik esan nahi.

Zergadunek aurrezki kutxetan eta banketxeetan helbidera ditzateke beren erreziiboak.

**B) Bide exekutiboan**

Epea igaro ondoren, premiabidez kobratzeari ekingo zaio, dagokion gainkarguaz, gai prozedurak eragindako gastuak, kostak eta atzeratzeagatikiko interesak, Udal bilketa bulegoan. Horrez gain, indarreango xedapenekin bat etorritik, zerga honen ordainketaz behar bezala bete dela egiaztatzen ez baldin bada, ezin diezaioke ibilgailuari baja eman ez eta eskualdatu ere.

Iragarki honek aipatutako zerga-kontzeptuaren zergadunei jakinerazteko balio izango du, martxoaren 10eko 2/2005 zergapidetzaren Foru arau orokorraren 100.atalean 3. Azpiatalean ezarritakoarekin bat etorritik.

Busturian, 2020ko irailaren 30ean.—Alkatea, Aitor Aretxaga Telletxea